

HONDARRIBIKO TOPONIMIA LIBURUAREN AURKEZPENA

Hondarribia, 2003-III-21

J.J. Furundarena Salsamendi

Arratsaldeon guzti-guztiori, eta eskerrik asko etortzeagatik!

Gaur, egun handia da niretzat, pozak txoratzen nago, ohore handitzat dudalako *Hondarribiko Toponimia* liburua aurkeztea, non eta Onomasticon Vasconiae bildumaren barruan. Bilduma ezagutu nuenetik nire ametsa izan delako. Izugarritzko ilusioa eta izugarritzko inbidia izan baitut horrelako ale bat argitaratzeko. Bada, iritsi da eguna, eta gaur, ilusioa bete dut.

Liburua ikerlan baten azken emaitza da. Ikerlana, Hondarribiko Udalaren lan-kontratu baten bidez egin zen. Lana bi urte eta erdian burutu zen: 1991.ko urtarrilean hasi eta 1993.ko ekainean bukatu. Ia hamar urte joan zaizkigu, beraz, lana amaitu nuenetik.

Lana bukatu esan dut, baina horrelako lanik ez da inoiz bukatzen. Argitalpena prestatzen aritu naizen honetan ere datu berri mordoa sartu dut, eta arautzea goitik behera moldatu behar izan dut, irizpide berrietara.

HELBURUA

Ikerlanaren helburua Hondarribiko leku izenak biltzea, arautzea eta kokatzea zen.

AZTERTUTAKO EREMUA

Orduan, Hondarribian mugitu gara. Baina, Hondarribia hiri estrategikoa izaki, eta hiri-gutuna aski goiz lortu zuenez, Irungo, Pasaia (Donibaneko) eta Lezoko jurisdikzioa izan du mendeetan. Horrek izugarritzko nahaste-borrastea sortu zidan agiri zaharrak begiratzeko garaian, herri horietako toponimo mordoa jaso nuelako, «terreno concegil» edo antzeko zehaztapenak besterik ez baintuen, eta nik ez jakin nongoak ziren. Horiek denak lan originalean

geratu dira, baina ez ditugu liburu honetan sartu, jakina. Baten bat itzuriko ziztaidan, hala ere. Barkamena eskatu beharko dut, beraz, horiengatik.

Itsasoaz ere bi hitz esan beharrean nago. Hondarribia lehorra eta itsasoa baita. Hainbat izen jaso ditut itsasokoak, eta liburuan sartzea pentsatu ere, pentsatu nuen, baina hain urri geratzen zenez, beste baterako utzi dut lan hori. Beste baterako, eta beste batentzako beharbada, gaur hemen dagoen beste bantentzat, hain zuzen ere.

METODOLOGIA

Lehenbiziko lana, beraz, leku izenak biltzea da.

Aurrena, agiri zaharretan arakatu nuen, batez ere: Espainiako Ogasunaren Artxiboan, Jabego Erregistroan (eskrituretan alegia), Elizbarrutiko Artxiboan eta Udal Artxibo Historiko zoragarrian. Pena, izugarritzko pena geratu ziztaidan, mina ez esateagatik, Oñatiko Protokoloen Artxibora ez nintzelako iritsi. Baina udal artxiboan garai bereko hainbeste agiri egonda, hauek aztertzeari nahikoa iritzi nion. Geroztik jakin dut, gainera, *Hondarribiko baserriak* taldekoek ederki miatu dituztela Oñatiko bazterrak. Beraz, lan hori ere egina dago.

Ondoren, liburuetan dauden izenak bildu nituen. Lehen ere esan dut, Hondarribia garrantzitsua izaki, eta asko argitaratu da Hondarribiari buruz, orduan eta hobeto guretzat. Atal honetan ez nuke bereizi gabe utzi nahi Florentino Porturen lan bikaina.

Gero, jendearekin hitz eginez, jendeak erabiltzen dituen leku izenak jaso nituen. Auzo bakoitzean gehien jakin zezakeen jendearekin hitz egiten saiatu nintzen Orokorrean, 65 urtetik gorakoak, bertan jaio eta hazitakoak, eta lanbidea mendia edo baserria izan zutenak... Ahal izan genuenetan, elkarrizketak tokian bertan egin ziren, toponimoak bere lekuan hobeto kokatzearren. Inguuru bera lauzpabost informatzailerekin ikustea izan zen nire asmoa.

Ondoren, izenaren forma arautzea dator. Eta arautzeak esan nahi du, hemendik aurrera, izen hori nola idatziko den zehaztea, beti modu horretara idazteko. Esate baterako: *Aranburunea*. Horrek ez du esan nahi hala esan behar denik, betiko moduan esan behar da: *Anbúnia*. Baina, idaztea gauza serioa da, eta idatzi behar da batera, eta esan bestera.

Arautzea lan nekeza da oso. Begiratu behar zaie agirietako datuei, nola erabili den gaur arte, zein den formarik zaharrena. Begiratu behar zaio egun-go ahoskerari, nola esaten duten herritarrek. Izenak gastatzen-gastatzen joan dira, eta forma jatorrak berreskuratu behar dira, agiriek horretarako bidea ematen badute. Baserrien izenetan zorrotzago jokatzeko da horretan, gainera.

Gaur egun, toponimia arautzeko ere, Euskaltzaindiak eman ditu zenbait irizpide, eta horrek beti errazten ditu gauzak, eta seguruago jokatzeko laguntzen dizu.

Beraz, hori da, azkenean, eta hitz gutxitan esanda, egin nuen ikerlana.

LIBURUA

Liburua ikerlanaren emaitza duzue, beraz.

Leku izen bakoitzari buruzko informazioa zazpi ataletan banatuta dator.

Lehenbizia, toponimoa dator buru-buruan; toponimoa arautua, hemendik aurrera erabili behar den forman idatzita, edo nik proposatzen dudana, behintzat.

Bigarrena, izen hori zer den adierazten da, zer objektu geografiko den: mendia, erreka, iturria, baserria, etxea.... Horietako zenbait argitu beharrean izan naiz, bertako hizkeraren kontuak tarteko, edo objektu geografiko bereziak direlako. Esaterako, itsas bazterreko arroka motak: *altua*, *baxa*, *bobarria*, *brankala*, *giltzarria*, *kanpoarria*, *orrazia*, *plantaina*, *sabiarria*, *txerkarria*, *xaxiarria* eta izango direnak. Bada, berezitasun horiek guztiak sarreran zerrendatu eta azaldu ditut.

Hirugarrena, iturriak aipatzea da. Alegia, izen hori nondik atera dudana, zein liburutan, edo zein agiritan agertzen zen.

Laugarrena, ebakera da. Herritarrek nola esaten duten jaso dugu hemen.

Bosgarrena, adierakideak ematea da; alegia, leku batek izen bat baino gehiago izan dituen kasuetan, bakarra aukeratzen da forma arauturako, eta beste izenetatik aukeraturakora igortzen da, oharren bidez. Horregatik, araututako sarreran adierakideen zerrenda agertuko da. (Sinonimoak esango bagenu bezala, hainbat izenek leku bera adierazten dute).

Seigarrena da kokagunea ematea, toponimo hori mapan non dagoen esatea. Diputazioaren 1:5000 eskalako planoak oinarri hartuta, kodigo baten birtartez plano horietara jo dezakegu, toponimoa non dagoen ikusteko. Gainontzean, *Hondarribiko Mapa Toponimikoa* ere argitaratua dago, eta bertan izenak alfabetikoki emanak daude, eta toponimoak non diren ikustea erraza egiten da. Badakit, gainera, maparen edizio berri eta zuzendua argitaratzear dagoela.

Eta, azkenik, oharra datoz. Eta oharretan denetarik sartu dut: agirietaiko aipamenak, etimologiak, objektuaren deskribapena, informatzaileen istorioak, eta abar.

ZAILTASUNAK

Bakardadea da lan honek izan duen koskarik handienetakoa. Batzuetan gozagarria, artxiboan agiri ederren bat eskuartean nuenean, edota informatzailereren batekin une majiko horietako bat lortzen nuenean. Baina, ai!, datuak ordenadorean sartzea etortzen zenean, edo formak arautzea iritsi zenean! Berebiziko horma jartzen zitzaidan aurrean, mendizaleek esango luketen bezala, eta hura igo behar. Orain, behintzat, honetan dabilen jende gehiago ezagutzen dut, eta zerbait gehiago argitaratu da eta jantzi zaitezke, baina garai hartan!

Hasiera-hasieratik argi izan nuen kaleko toponimia ere bildu behar nuela, ez baserri girokoa bakarrik (Jose Luis Lizundiak, ondo asko adierazi du gauza bera *Ermua-Eitzağako* liburuaen aurkezpenean). Eta ur handiak dira horiek Hondarribian. Aspalditik da hiri Hondarribia, lehen ere esan dizuet, eta nahaspila handia dago bateko kale izen zaharrekin, galdu diren kale edo kallexkekin, besteko etxeen izenekin, funditu zirenekin eta egin diren berriekin, besteko iturri zaharrekin, besteko hainbat txokorekin...

Toponimo berri-berriak eta exotikoak ere jaso nahi nituen, atzetik egurra emateko besterik ez bada ere. Lekuen izenak aldatu egiten dira, berriak sortzen dira, eta sorrera horren lekukotza utzi nahi izan dut. Horregatik jaso ditut: *Barrio chino* eta *Xangai*. Edo betiko izen arrunt jatorrak ordezkatzera etorri diren: *Iterlimen*, *El Molino*, *Las Bafieras*, *Malarranas* horiek.

Villen izenekin ere hor ibili naiz ezinean. Denak jasotzen hasi nintzen, baina hainbeste zirela ikusita, mende hasierako guztiak jasotzea jarri nion nire buruari helburu. Ez dakit, hala ere, lortuko nuen. Geratuko zen baten bat.

* * *

Itsasoa beste mundu bat dela esaten da askotan. Eta itsasoaren eta lehorren artean arrokak. Eta arroketan arrantzan aritzen dena arrokeroa. Arrokeroa instituzioa izan da Hondarribian. Eta arrokerook arroka bakoitza izenez ezagutzen du. Nekez jaso daiteke informazio hori. Arroka bertatik bertara ikusita ere, gero hori planoan zehatz-mehatz kokatzea ere ia ezinezkoa delako, guk ibili ditugun bitartekoeekin, behintzat. Itsasbazterra egiteko hegazkinetik ateratako fotografiez baliatu gara askotan. Hortik atera kontuak!

Eta arautzea. Lan zailik baldin badago horrelako lanetan, arautzea da. Hemendik aurrera zein forma erabiliko dugun erabakitzea. Bere garaian ez nuen laguntza handirik izan, eta gaizki pasatu nuen. Oraingoan, berriz, liburua taxutzerakoan, laguntza handia izan dut: Andres Iñigorena, Mikel Gorrotxategirena, eta *Hondarribiko baserriak* taldearena, baina esango nuke are zailagoa egin zaidala erabakitzea. Seguru asko, atzetik argitalpena zetorrelako, eta ardurak eragindako kezka izango zen.

Hondarribiko baserriak taldearen laguntza berebizikoa izan da. Zenbait izen hauek emandako datuetan oinarrituta arautu ditut. Adibiderik argiena *Apaiztxara* da. Nik banuen susmoa hala izan zitekeela, Federico Gebarak esaten duelako bere liburuan «*Apa-chara o Apaiz-chara jaro del Obispo*»). Baina Fermin Olaskoagak elizako artxibotik ateratako aipamenetan garbi ikusten zen *Apatxara* Apaiztxaratik datorrela.

Arriskatu beharra ere gertatzen da zenbaitetan, gurea ez delako zientzia zehatza. Neurriko arriskua jakina, beti datuetan oinarrituta lan egiten baitugu, baina izen batzuetan bi formen artean baten alde egin behar duzu, eta bataren aldeko datuak zein bestearen aldeko datuak dituzunean, zirt edo zart egin behar duzu, eta nekez, oso nekez hartzen dira erabakiak: *Zarpia* edo *Sarbidea*, *Sorgindegi* edo *Sorrondegi*.

ZER GERATZEN DA EGITEKO

Normalizazio lana geratzen da egiteko, alegia herriak leku izenak era arautuan erabiltzea. Eta hori udalaren lana da, eta badakit ari dela lan horretan, eta auzoen izenekin ari dela (*Jaitzubia*, *Arkolla*, *Zimizarga*, *Gornutz-Montaña*, *Amute-Kosta*, *Puntalea*,...). Baina ez da administrazioaren lana bakarrik. Komunikabideek (herriko aldizkariak, egunkariak, irratiek,...), kultur elkarteek, eskolek, auzo elkarteek eta abar lan handia egin dezakete normalizazioaren bidean.

Eta normalizazio horretan kokatzen dut nik zenbait izen nagusi ere aldatzea, auzoekin egin den eran. Horretarako bide ematen du nire lanak. Esate baterako: *Alamedak* (Ez Portukoak, Damarri ondokoak baizik) *Lamera* izan beharko luke. *Lamera* bai, susmoa dudalako izen hori ez datorrela *alamo* zuhaitzaren erdarazko izenetik. *Lamera* bai, Bermeon eta Elantxoben jarrita daukaten eran, *Lamera*. Eta badira gehiago, zenbait kale izen eta.

Normalizazio lana da erdarazko izen berrien aurka egitea: (*El*) *Molino*, *Las Bañeras*, eta *Playa de los frailes* bera, honek beste upeleko sagardoa dirudien arren. Izen jatorrak berreskuratuz, behar dira: *Artzuko portu*, *Izkiraputzu* eta *Asturiaga*. Izen jatorrarekin txartelen bat jarrita leku horietan edo, asmatu behar da moduren bat.

Eta ikerketarako gaiak ere geratu dira:

– kokatu gabeko toponimoak non diren zehaztu: *Zuzuarregi* baserriak adibidez. Ia-ia asmatu dugu azkenean zein diren, baina hortxe geratu dira, norbait atez ate eskriturak begiratzen hasteko zain.

– mila «sekretu» argitzeko: zer da *Amu* erroa? Hor dugu *Amute*, edo *Amuate* Federico Gebarak (De Yur.) dioen bezala, hor dugu *Amuaitz* edo

Amuko. Erramuzko dorrea, ez al da Erramugurutzeko dorrea? Ni seguru nago horretaz, baina datuekin frogatu behar da. Zer da *Aspunea*? Nondik dator?

– Alde Zaharreko kaleen eta etheen historia ere egin beharko da egunen batean. Oinetxez egin dira zenbait lan.

– Itxiak edo itsasoari kendutako eremuak ere alor interesgarria dira: *Itzazar*, *Itzaundi*, *Itzaberri*, *San Pablo*, *San Joakin*, *San Joxepe*. Kronologia, zein teknika erabili zen egiteko, herritarren artean nola banatu ziren...

Hainbeste hari geratu dira, tiraka hasi nahi duenarentzat...

ESKERRAK

Aipamen berezia egin nahi nioke Koro Eraso, udaleko euskara teknika-riari. Lankide ezin hobea izateaz gain, beti aurrera egitera animatzen ninduelako, beti aurrera. Liburuak mardulean zer bait baldin badu, bere errua ere bada hein batean.

Nire aurretik Hondarribian lan honetan aritu direnei esker ona adierazi nahi nieke, batez ere, Juan San Martini, Luis Mari Elosegiri, Maximo Sagarzazuri (zenari esan beharko nuke euskara jatorrean, baina ez dakit seguru zein dauden gurekin, eta zein joan diren gure artetik, eta gainera nik beti gogoratuko ditut bizi-bizirik), Maximo Sagarzazuri esan bezala, eta Jose Mari Gonzalez Kamiori. Harrituta utzi ninduen haien eskuzabaltasunak, urteetako lana nire esku jarri zutelako inongo eragozpenik gabe.

Argitalpena prestatzeko garaian, berriz, laguntzaile ezin leialagoak izan ditut *Hondarribiko baserriak* taldekoak: Luis Mari Elozegi, Kote Gebara, Fermín Olaskoaga eta Koldo Ortega.

Eskerrik asko, baita ere, Juan Pedro Irigarai delinearitzaileari, kartografia lanetan dena egin zidalako. Eskerrak, Kote Gebarari udal liburutegian, Begoña Andresi udal artxiboan, eta Maria Luisa Emazabeli eta Iñigo Azpirozi informatika arloan, laguntzaile ezin prestuagoak izan nituelako. Eskerrak etxekoei, Marijo Maiz eta Arantxa Astiasuainzarra laguntzaile finei. Eskerrak Euskaltzaindikoei, batez ere Andres Iñigori, gure lana aztertzen emandako orduengatik, baina baita ere, Mikel Gorrotxategiri, eta argitalpen arduradunari, Rikardo Badiolari. Eskerrik asko udaletxeko lankide guztiei. Eta, azkenik, mila esker lagundu zenidaten herritar guztioi. Behin eta berriro bihotza kizkurtzeraino hunkitu ninduzuen. Mila esker Juan Joxe, Bitoriano, Xeledoni, Bixente, Faustino, Joxe Luix, Florentina!

ESKAINNTZA

Nire lana inoiz argitaratzen bazen, liburua gurasoei eskaini behar niela oso argi nuen, naizen guztia zor diedala uste dudalako; gainera, orain bada-

kit norainoko aztarrika den guraso izatea, eta eskertzeko moduko lana iruditzen zait.

Beti izan nuen hori buruan, baina lagun batek kendu zidan ideia hori burutik, orain dela zenbait urte, juxtu, argitaratzeko lanekin hasi ginen urtean. Urte hark semea eman zidan, eta laguna betiko kendu: hara zer den bizitza!

Joxe Mari Etxaniz Aranburu, Zumarragako Antioko *Landaburu* baserriko semea. Gizon azkarra eta jantzia, prestua, zintzoa eta leiala, euskalzalea, eta hark zuen euskara! Inork gutxik bezalako tornuia zuena. Lagun handiari eskaini diot liburua, lagunari eta bere familiari. Baina poetak esan zuen bezala, «besteen baitan baizik ez gara bizi». Beraz, bion lagun onak ikusten ditudanez hemen bilduta, gure baitan bizi dugu Joxe Mari. Eta orain, badakit, aurkezpena bukatzen dudanean, eta zuek denok txaloka hasten zatzaizkidatenean, badakit nik bai, hura ere txaloka hasiko zaidala.

Eskerrik asko denoi etortzeagatik! Edo gosaltzen genuen okindegi-kafe-tegiko etxeoandreak goizero-goizero hutsik egin gabe esaten zigun bezala, mila esker aunitz! Eta barkatuko didazue Hondarribiko hiritartasunarekin ibili dudana txantxa. Harpa jo nahi nien hain lagun sentitzen ditudan Udaletxeko lankideei. Eskerrik asko!